

Funtsezko baliabideak:

Enpresak ondo funtzionatzeko, hainbat baliabide hartu behar ditugu kontuan; hori dela eta, gure prozesua ondo garatzeko eta aurrera egin dezan hurrengoak hartuko ditugu



kontuan: finantzak, giza-baliabideak, baliabide intelektualak (aplikazioa berak) eta baliabide fisikoak.

Finantzaketa arloan, eta diru-iturrietan azaldu dugun moduan, estatuaren eskutik laguntza anitzak

eskuratuko ditugu, baita gure aurrezkiak proiektuak finantzatzeko erabiliz ere.

Bestalde, baliabide intelektualak eta giza-baliabideak gure proiektuaren garapenean eta gure enpresa barruan landuko duten pertsonak osatuko dute; gainera, aplikazioa mantentzeko eta enpresak ondo funtziona dezan gure taldearen lana gehitu beharko diogu, hau da, gure enpresan lan egiten duten pertsonak (web-gunearen mantenamendua, hitzaldien antolaketak...).



Azkenik, baliabide fisikoen multzoan, nabarmendu behar ditugu erabiliko diren ordenagailuak eta "hardware"-eko soportek, baita alokatutako bulegoa ere. Horiei esker, gure soporte digitalaren funtzionamendu bikaina bermatuko dugu.
